

ZENBAIT IKASGAIEN DESKRIBAPENA

IKASGAIAREN IZENA: FRANTSES TAILERRA	MAILA: DBH 4
<p>IKASGAIAREN DESKRIBAPEN LABURRA:</p> <p>Maila honetan konpetentzia guztiak landuz jarraituko dugu: Ulermena (bai idatzitako testuekin hala nola Ahozkoarekin) eta Ekoizpena (Idatzizkoa eta ahozkoa).</p> <p>Sei unitate lantzen ditugu ikasturtean zehar. Unitate bakoitzean gramatika, hiztegia eta komunikazioa lantzen ditugu.</p> <p>Maila A2</p>	
<p>EDUKI ESANGURATSUENAK:</p> <ul style="list-style-type: none">– Aurreko urtean emandakoa erreparatuko dugu.– Ohiko bizitzari buruzko testuak ulertu eta ekoiztuko ditugu.– Iragana, etorkizuna eta hipotesiak lantzeko testu diferenteak ekoiztuko ditugu, eta horiekin eta beste testu batzuekin ere, ulermena landu.	

IKASGAIAREN IZENA: FRANTSESA (FRANTSES PROIEKTUA)	MAILA: DBH 4
<p>IKASGAIAREN DESKRIBAPEN LABURRA:</p> <p>Maila honetan konpetentzia guztiak landuz jarraituko dugu: Ulermena (bai idatzitako testuekin hala nola Ahozkoarekin) eta Ekoizpena (Idatzizkoa eta ahozkoa).</p> <p>Sei unitate lantzen ditugu ikasturtean zehar. Unitate bakoitzean Gramatika, hiztegia eta komunikazioa lantzen ditugu.</p> <p>Maila B1 (Delf)</p> <p>Balore etikoetan, etikarekin erlazionatuta hainbat testu edo esaldi irakurri eta hausnartu egingo dira. Honez gain idazlan disertatiboak idatzi egin beharko dituzte, eta klasean beren iritziak ahoz azaldu. Kurtsoan zehar hiru pelikula ikusiko ditugu ahozko ulermena lantzeko.</p>	
<p>EDUKI ESANGURATSUENAK:</p> <ul style="list-style-type: none">• Les subordinées: La cause, le temps, la concession, la conséquence, le but.• Les pronoms relatifs composés. Le discours indirect. L'interrogative indirecte.• La phrase hypothétique. Le gérondif. La double négation. La proposition participe au participe présent.• L'indéfini n'importe... Les verbes pronominaux (au présent et au passé	

IKASGAIAREN IZENA: MUSIKA	MAILA: DBH4
<p>IKASGAIAREN DESKRIBAPEN LABURRA:</p> <p>Gaur egungo musika modernoa entzun, analizatu, ulertu, jo eta sortu egingo dugu.</p> <p>Batez ere, letra duten musika estiloak jorratuko ditugu. Euskal musika eta ikasleek proposatutako entzunaldiak abiapuntu hartuko ditugu, klasean jorratutako edukiak modu praktikoan ikasi eta aplikatzeko.</p>	
<p>EDUKI ESANGURATSUENAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Musika hizkuntza <ul style="list-style-type: none"> – pultsoa eta oinarrizko patroir erritmikoak (riffs) – analisia: forma, harmonia, letra • Praktika: interpretazioa eta espresioa <ul style="list-style-type: none"> – ukelelea – ahotsa • Kultura musikala <ul style="list-style-type: none"> – Euskal musika modernoa – Internatzionala 	

IKASGAIAREN IZENA: FILOSOFIA	MAILA: DBH 4
<p>IKASGAIAREN DESKRIBAPEN LABURRA:</p> <p>Helburua: Filosofiaren baliabide intelektual eta epistemologikoak erabiltzea, eguneroko bizitzako egoerei gogoetaren eta espiritu kritikoaren bitartez aurre egiteko. Hori horrela izanik, filosofiaren oinarrizko auziak mahaigaineratuko dira, eta Filosofiak historian zehar proposatutako galde-erantzunak erabiliz, Filosofiak berak gaur egun duen eginkizuna balioesten saiatuko gara.</p> <p>Metodologia: Baliabide desberdinak erabiliz, hainbat gai landu nahi dira. Lanketa hori aurrera eramateko, hausnarketak, debateak eta proiektu txikiak egitea proposatzen da, liburuak, filmak eta irakasleak prestatutako materiala oinarri hartuz.</p>	
<p>EDUKI ESANGURATSUENAK:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. gaia: Filosofia, praktikoa? 2. gaia: “happykrazia”, edo zoriontsu izan beharraren kondenez. 3. gaia: zer da askea izatea, nahi dudana egitea? 4. gaia: telebistak esaten duena sinisten al duzu? Egjari buruz hausnartzen. 5. gaia: Maitasuna ere gai filosofikoa delako. 6. gaia: Eta heriotzari buruz, zer? 7. gaia: Transhumanismoa eta cyborg-ak 8. gaia: Mugak, zertarako? <p>*Proposatutako gaiak ikastaldearen berezitasun eta ezaugarrien arabera alda daitezke.</p>	

IKASGAIAREN IZENA: **INFORMATIKA**

MAILA: DBH 4

IKASGAIAREN DESKRIBAPEN LABURRA:

Ikasgaiaren helburu nagusia Google tresna aurreratuak eta gai orokorreko eta multimedia aplikazioak (irudi digitalaren edizioa, animazioa, audioa eta bideoa) modu seguru eta lankidetzan erabiltzea da.

Gai guztiak Informatika gelan lantzen dira. Ikasle bakoitza ordenagailu batean eseritzen da. Metodologia aktiboa. Ikasle bakoitzak gai bakoitza gidatutako ariketa eta proiektuen bidez landuko du. Ikasgaia jarraitzeko ikasleak webgune bat erabiliko du eta bertan behar duten materiala aurkituko dute, institututik eta etxetik eskuragarri.

EDUKI ESANGURATSUENAK:

- Internet
 - Eboluzioa
 - Segurtasuna. Sare sozialak
 - Lankidetzarako Google tresna aurreratuak (Gmail, Google+, Talk, Drive, Bilatzailea, Translate aurreratua, Maps, Blogger, Google Fotos, Youtube, etc.)
- Irudi digitalaren edizioa. Aurreratua
 - Edizioa
 - Egileen eskubideak
 - Publikazioa. Segurtasuna
- Animazioa. Hasierakoa
 - Edizioa
 - Egileen eskubideak
 - Publikazioa. Segurtasuna
- Audio edizioa. Aurreratua
 - Edizioa
 - Egileen eskubideak
 - Publikazioa. Segurtasuna
- Bidedo edizioa. Hasierakoa
 - Edizioa eta muntaia
 - Bideotutorialak
 - Egileen eskubideak
 - Publikazioa. Segurtasuna

IKASGAIAREN IZENA: MARRAZKETA	MAILA: DBH 4
<p>IKASGAIAREN DESKRIBAPEN LABURRA:</p> <p>Marrazketa teknikoan sarrera bat da, bertan geometria laua eta geometria deskribatzailearen inguruko oinarrizko ezagutzak eskuratuko dira. Gainera ordenagailuz lagundutako marrazketan ere hasiko dira ezagutza horiek aplikatzen (AutoCad).</p>	
<p>EDUKI ESANGURATSUENAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Poligonoak, ukitzaileak, eskalak, proportzioak, etab. - Adierazpen sistemak: Sistema Diedrikoa, Sistema Konikoa, Sistema Axonometrikoa - Ordenagailuz Lagundutako Marrazketa - Diseinu grafikoa: Logotipoen sorrera, edukinontzien garapenak, etab. 	

IKASGAIAREN IZENA: PLASTIKA	MAILA: DBH 4
<p>IKASGAIAREN DESKRIBAPEN LABURRA:</p> <p>Ikagai hau bereziki plastika eta ikus-hezkuntzaren ezagutza handiagotzeko nahia edo beharra duten ikasleei zuzendua dago. SGaitasun pertzektibo, espresibo eta estetikoak garetuko dira ezagutza teoriko-praktikoetan oinarrituta.</p> <p>Aldi berean, irudimena, sormena eta errealitate plastiko, bisual eta sozialen aurrean ikaslearen arrazonomendu kritikoa garatzea bilatuko da. Horrekin batera ikasleak elementu plastikoak errekurtsio espresibo bezala erabiltzen trebatuko da.</p>	
<p>EDUKI ESANGURATSUENAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Plastika eta ikus-mintzairaren elementu eta prozesuak. - Gertakari artistikoaren eta orokorrean irudiaren analisi kritikoa eta onspena. - Adierazpen eta komunikazio teknika eta bideen ezagutza erabiltzea. 	

IKASGAIAREN IZENA:

**EKINTZAILETASUNA ETA ENPRESA
JARDUERETARAKO HASTAPENA**

MAILA: DBH 4

IKASGAIAREN DESKRIBAPEN LABURRA:

- Etorkizunean zer? Beste batentzako lan egiteaz aparte, autoenplegua ere aukera bat dela jabetuko gara.
- Pertsona ekintzailea definituko dugu, bere gaitasun pertsonalak eta trebetasun sozialak.

EDUKI ESANGURATSUENAK:

- Enpresa-jarduera. Enpresaren eginkizun eta sailak.
- Enpresa proiektua. Enpresa bat eratu eta martxan jartzeko zertan pentsatu behar dugun landuko dugu: balio proposamena, ekoizpen prozesua, behar diren baliabideak, burutu behar diren lanak, merkatu-azterketa, enpresak behar dituen lanpostuen deskribapena, langileen hautaketa, langile onaren ezaugarriak, eratzeko eta martxan hasteko egin beharreko tramiteak edo izapitdeak eta abar.
- Erakunde publikoekin harremanak: Ogasun Publikoa, Gizarte Segurantzza, Eusko Jaurlaritza, Udaletxea.
- Bezero eta hornitzaileekiko harremanak. Lehiakideak.
- Fakturak.
- Lan kontratatutak eta nominak.
- Enpresak finantzatzeko dituen aukera ezberdinak.

Edukiak DBHko 4. ikasturteko ikasleei egokituko zaizkie. Enpresa proiektu bat egingo dute, non enpresaren bideragarritasuna aztertuko duten (taldeka).

IKASGAIAREN IZENA: EKONOMIA	MAILA: DBH 4
<p>IKASGAIAREN DESKRIBAPEN LABURRA:</p> <p>Ekonomia zientzia bat dela jabetzea izango da gure helburu nagusienetakoa. Zientzia honen beharra zer dela eta? Gizakion beharrak mugagabeak izanik, nahikoak ez diren baliabideak administratzea da bere helburua. Beraz, erabaki egin behar da zertan erabili baliabide horiek.</p>	
<p>EDUKI ESANGURATSUENAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Terminologia ekonomikoa • Jarduera ekonomikoa eta enpresa. Enpresen forma juridikoak. • Ekoizpen faktoreak. Sektore ekonomikoak. • Enpresen finantziario iturriak. Diru-sarrera, kostu eta emaitza ekonomikoa. • Aurrekontu pertsonala eta familiaren aurrekontua. Aurrezkiarekiko jarrera positiboa. • Dirua, kontuak, txartelak eta ordaintzeko beste zenbait baliabide (bizum adibidez). Segurtasuna. • Administrazio Publikoen aurrekontuak (diru-sarrerak eta gastuak. Defizit Publikoa.) • Zergak • Barne Produktu Gordina • Interes tasak eta interes kuotak. • Inflazioa • Langabezia eta okupazio tasa • Globalizazio ekonomikoa, nazioarteko merkataritza, eta honek ingurunean duen eragina. 	

IKASGAIAREN IZENA: TEKNOLOGIA	MAILA: DBH 4
<p>IKASGAIAREN DESKRIBAPEN LABURRA:</p> <p>Ikasgai honetan teoria eta praktika jarduerak uztartzen dira. Proiektuen-metodoa metodologia ardatza izanik, arazo-egoera bati erantzuna emango diote, ikasitako edukiak aplikatuz. Proiektu amaieran, txostena egin eta aurkeztuko dute.</p>	
<p>EDUKI ESANGURATSUENAK</p> <ul style="list-style-type: none"> - Proiektuen-metodoa. - Ideien adierazpena (adierazpen grafikoa, ahozko eta idatzizko adierazpena). - Mugimenduaren transmisioa eta eraldaketa. - Elektrizitatea, oinarriko elektronika. - Automatismoa eta robotika (Arduino, mBlock). - Gehikuntzako- fabrikazio metodoa (3D impresioa). 	